

BILBOKO AROA

PLAN ESTRATEGIKOA

2025-2035

0. Aurkibidea

1. Aurkezpena: Juan Mari Aburto
2. Sarrera eta testuingurua
3. Bilboko euskararen egoeraren diagnostikoa
4. Arlo estrategikoa
 - 4.1. Misioa
 - 4.2. Bisioa
5. Bilboko AROA Plan Estrategikoa 2025-2035
 - 5.1. Ardatz estrategikoa: Gobernantza
 - 5.2. Ardatz estrategikoa: Jarrerak/Motibazioak
 - 5.3. Ardatz estrategikoa: Ezagutza/Gaitasuna
 - 5.4. Ardatz estrategikoa: Erabilera/Elkarreragina
 - 5.5. Ardatz estrategikoa: Berrikuntza
 - 5.6. Kudeaketa-ardatz estrategikoa: Ikerketa/Sistematizazioa
 - 5.7. Kudeaketa-ardatz estrategikoa: Komunikazioa/Hedapena
6. Zehar-lerroen lanketa
7. Jarraipena eta ebaluazioa
8. Eranskina: Bilboko AROA Plan Estrategikoa 2025-2035

1. Aurkezpena: Juan Mari Aburto

2. Sarrera eta testuingurua

2013an Eusko Jurlaritzak Euskara Sustatzeko Ekintza Plana, ESEP, diseinatu zuen hurrengo 10 urteetarako eta Bilboko Udalak 2014an onartu zuen bere ESEP Plana, Eusko Jurlaritzak markatutako ildoak jarraituta eta Bilboko uneko egoerara egokituta.

2023. urtearen amaieran, Bilboko ESEP Planaren indarraldia bukatzeaz zegoela, Udalak planaren ebaluazioa eta Bilboko euskararen egoeraren diagnostikoa egitea erabaki zuen, hurrengo plana sortzeko oinarri sendoa izate aldera. Hori horrela, 2023ko azaroan, **“Bilbo eta euskara. Egungo egoera eta aurrera begirakoak”** 8 hilabeteko diagnostiko prozesua abiatu zuen.

Udala diagnostikoa garatzen ari zela, 2024ko urtarrilean, Eusko Jurlaritzak **“Euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduztzeko AROA Marko Estrategikoa 2024-2034”** onartu zuen, gainerako erakunde publikoentzat erreferentziazko markoa izango zena. Hala, Bilboko Udalak, Eusko Jurlaritzaren marko estrategikoa ardatz hartuta eta aurreko planaren ebaluazioa eta egoeraren diagnostikoa oinarri izanda, **Bilboko AROA Plan Estrategikoa 2025-2035** diseinatu du.

AROA Plan Estrategikoaren muina da Bilbon euskara indarberritzea eta bere erabilera areagotzea. 2025-2035 epealdirako diseinatutako plan honek Bilboko Udalaren hizkuntza-politikaren norabidea markatzen du, 10 urterako ikuspegi batean oinarrituta. Planak jasotzen dituen ardatz, erronka, lan-ildo eta ekintzen bidez, euskararen ezagutza, erabilera, motibazioa eta prestigioa sendotzea bilatzen da, eta horretarako, begirada berezia jarri da Gobernantza ereduan eta Udalaren lidergoan.

Dokumentua osatzen duten edukiak hiru zutabe nagusitan oinarritzen dira:

- ❖ **Bilboko euskararen egoeraren diagnostikoa:** 2023ko azarotik 2024ko ekainera bitartean egindako diagnostikoaren prozesua azaltzen da eta diagnostikotik ateratako emaitza nagusiak aurkezten dira atalka banatuta.
- ❖ **Arlo estrategikoa:** Plan honen arlo estrategikoa definitzen da, alde batetik, misioa, eta bestetik, bisioa.
- ❖ **Bilboko AROA Plan Estrategikoa 2025-2035:** Planaren 7 ardatzak azaltzen dira, 5 ardatz estrategiko nagusiak eta 2 kudeaketa-ardatz estrategikoak. Ardatz bakoitzari atal bat eskaintzen zaio eta lehen 4 atalen azalpenean, arlo horri lotutako erronkak, lan-ildoak, ekimenak eta ekintzak definitzen dira. Azken 3 ataletan ekintzak soilik adierazten dira.

Hiru zutabe horiez gain, 10 urterako plan honetan zehazten da zeintzuk izango diren planteatutako ekintzetan zeharka landuko diren Udalaren zehar-lerroak; adierazten da arlo horietako bakoitzaren ikuspegia nola txertatuko den.

Amaitzeko, planaren jarraipenari eta ebaluazioari eskaini zaio tarte. 10 urte barru irudikatu da Bilbo, eta egoera horretara heltzeko hainbat lan-ildo, ekimen eta ekintza planteatu dira. Hortaz, planaren garapena, inpaktua eta eragina ebaluatzeko, jarraipen eta berrikuspen sistema bat definitu da, une desberdinetan eta adierazle sistema bereiziekinek neurtuko dena.

Dokumentuaren amaieran, eranskin gisa, AROA Plan Estrategikoaren eskema aurkezten da.

AROA plan dinamiko gisa sortu da, unean uneko egoeretara eta errealitatera egokitzeak aukera emango duen dokumentua izango da; beraz, malgutasun horri eutsiko zaio, 10 urte horietan zehar, beharrezkoa denean, egokitzeak egin ahal izateko.

3. Bilboko euskararen egoeraren diagnostikoa

Bilboko Udalak 2014an onartu zuen Bilboko Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP). Plan horren indarraldia amaitu ostean, 2024an, egindako ibilbidea aztertu eta baloratu zen, AROA plan berriaren oinarri gisa

2023ko azaroan abiatu zen **“Bilbo eta euskara. Egungo egoera eta aurrera begirakoak”** diagnostikoa. Prozesuak 8 hilabete iraun zuen, eta hainbat urrats izan zituen.

Prozesuarekin hasteko, Bilboko euskararen egoerari buruzko datu estatistiko, soziolinguistiko eta erabilera-datuak aztertu ziren, baita Bilbon euskarari buruz egindako ikerketak ere.

2024ko urtariletik ekainera bitartean lanaren fase garrantzitsuen jarri zen martxan: parte-hartze prozesua. Prozesu horretan parte hartu zuten Bilboko hainbat alderdi politikok, erakundek, elkarteak, enpresak eta mugimendu sozialeko eragileak. Helburua izan zen esparru desberdinetako jendearen iritzia, ideiak eta proposamenak batzea, hurrengo urteetara begira bide egoki eta eraginkorrak aukeratu eta lantzeko.

Lehenik, urtarilean eta otsailean, Bilboko alderdi politikoetako ordezkariak eta euskal instituzio eta akademietako ordezkariak elkarriketatu ziren, hiriko hizkuntza politikaren inguruan dituzten kezka, iritzi eta proposamenak biltzeko.

Ondoren, otsaila eta martxoa bitartean, 5 kontraste saio edo lan-mahai antolatu ziren Bilboko errealitatearen analisia egiteko, beharrak identifikatzeko eta aurrera begirako erronkak zehazteko. Arlo, eremu eta hartzaile motaren arabera, talde desberdinak osatu ziren eta bakoitzarekin kontraste saio bana antolatu zen. Talde bakoitza osatzeko, arlo bakoitzean Bilbon diharduten agenteak, adituak edo elkarteetako ordezkariak gonbidatu ziren. Hauek izan ziren landu diren arloak: euskalgintza, jabekuntza, arlo sozioekonomikoa, aisia eta kirola, kultura eta hedabideak.

Apirilean, Bilboko 8 barrutietako batzordeetako kideak gonbidatu ziren saio batera auzoetako ikuspegia jasotzeko eta euskarak auzoetan duen egoera ezagutzeko.

Parte-hartze prozesuarekin bukatzeko, ekainean, herritarrak izan ziren protagonista. Bilbotarrek aukera izan zuten prozesuan parte hartzeko eta Bilboko euskararen egoeraren inguruko iritzia eta beharrak adierazteko eta baita aurrera begirako proposamenak egiteko ere. Horretarako, bi bide erabili ziren: batetik, parte-hartze saio ireki bat antolatu zen; bestetik, galdetegi bat jarri zen Udaleko webgunean, denbora tarte jakin batez eskuragarri egon zena.

Amaitzeko, txosten bat osatu zen jasotako informazio guztiarekin.

DIAGNOSTIKOAREN EMAITZA NAGUSIAK:

1. Euskara sustatzearen inguruko jarrerak

Azken 30 urteetan hazi egin da euskararen erabilera sustatzearen aldeko jarrera, bilbotarren artean: % 46tik % 57,2ra. Kontrako jarrera dutenak % 10 baino gutxiago dira, 1991n baino hamar puntu gutxiago.¹

Hala ere, euskararekiko jarrera eta diskurtso orokorra aldekoa izan arren, jarrera horien aktibaziorako eraginkorra den motibazioa falta da, ez dakitenek euskara ikasteko urratsa eman dezaten eta dakitenak erabiltzen has daitezen. Euskararekiko jarrera pasiboak antzematen dira, batez ere, erabilerari dagokionean, ez diotelako garrantzirik edo baliorik ematen.

2. Euskararen ezagutza

2021eko datuen arabera, 103.631 euskal hiztun bizi dira Bilbon. Kopuru horrekin, Bilbo da euskal hiztun gehien dituen udalerria. Ehunekotan, hiriko biztanleriaren % 30,6k du euskararen ezagutza, eta datu hori 20 puntu igo da 1991tik hona. Nolanahi ere, Bilboko datua Bizkaiko (%37,1) eta EAeko (% 42,5) batez bestekoen azpitik dago.²

Adinari dagokionez, zenbat eta gazteago, orduan eta handiagoa da euskararen ezagutza. 20 urtetik beherako herritarren artean, % 80k baino gehiagok daki euskaraz, eta horrek erakusten du belaunaldi berrietan ezagutzak gora egin duela nabarmen.³

Hala ere, gaitasun erlatiboaren ikuspegitik⁴, Bilbon, euskal hiztunen artean, hirutik bik erdaraz hitz egiten du errazago.

1 Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

2 Iturria: Eustat, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak.

3 Iturria: Eustat, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak.

4 Gaitasun erlatiboa —euskaraz hitz egiteko erraztasuna, erdararekin alderatuta— da euskararen erabileran gehien eragiten duen faktoreetako bat.

Adin txikikoen artean ezagutzak gora egin badu ere, hizkuntza gaitasunaren sendotasuna ez da horrenbeste hobetu. 16-24 urtekoen artean gehienak euskal hiztunak diren arren, euskal hiztun horien artean, % 76,7k erdaraz hitz egiten du errazago.⁵

Oro har, euskararen gaitasun erlatiboan gabezia nabarmenak daude Bilboko euskaldunen artean. Euskaldunak gero eta gehiago izan arren, horietako asko ez dira eroso sentitzen euskaraz komunikatzeko orduan, ziurtasun falta sentitzen dute eta erdararako joera nabarmena dute.

Bilboko euskaldunen gaitasun erlatiboaren eboluzioari erreparatuta, datu hauek ageri dira: 1991n, Bilboko euskaldun guztien % 33,7 ordezkatzeko euskal elebidunen (% 11,2) eta elebidun orekatuen (% 22,5) arteko baturak; 2021ean, ordea, Bilboko euskaldun guztien % 33,5 ordezkatzeko euskal elebidunen (% 8) eta elebidun orekatuen (% 25,5) arteko baturak.⁶

Beste alde batetik, auzoen arabera banaketaren arabera, euskal hiztunak oso sakabanatuta daude hirian. Bilboko auzoetan biztanleria euskaldunaren proportziorik altuena % 9koa da. Eta auzoetako hiztun-dentsitateari dagokionez, Zazpikaleetan dago kontzentrazio mailarik altuena, % 40.⁷

3. Familia bidezko transmisioa

Familia bidezko transmisioan aurrerapenak hauteman dira azken urteetan. Euskaraz ikasi duten belaunaldiak guraso izateko garaira iritsi dira, eta horrek aldaketa ekarri du: gaur egungo guraso gazteen artean, euskaraz ikasi dutenen kopurua handiagoa da.

Gainera, nahiz eta gazte askok euskaraz hitz egiteko ohitura sendoa ez izan nerabezaroan, badirudi guraso izateko unean kontzientzia handiagoa garatzen dutela hizkuntza transmisioari dagokionez, eta euskararen erabilerari garrantzi handiagoa ematen diotela familia giroan.

Hala ere, datuek erakusten dute euskararen transmisioaren ehunekoa ia ez dela aldatu azken hiru hamarkadetan. 1991n Bilboko familien % 4,8k transmititzen zuten euskara, eta 2021ean %4,9k.⁸

Euskara eta gaztelania batera transmititzeko joerak bi puntuko gorakada izan du, datuen arabera, % 4,6koa da. Aldiz, euskaraz eta gaztelaniaz aparteko beste hizkuntza bat transmititzen duten familien ehunekoa % 5,8ra iritsi da.⁹

⁵ Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

⁶ Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

⁷ Iturria: Eustat, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak.

⁸ Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

⁹ Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

4. Hezkuntza arautua

Euskararen ezagutza izan den aurrerabideak harreman zuzena du D ereduaren zabalpenarekin. Hezkuntza arautuko matrikulazioen % 8,7 zen 1991/1992 ikasturtean, eta % 53,4, 2021/2022an. A eredia, berriz, nagusitasunetik egoera minoritario batera igaro da.¹⁰

Hala ere, D eredia ez da beti eraginkorra euskara gaitasun egokia bermatzeko, arrazoi desberdinengatik:

1) Ikastetxeko erabilera mugatua: sarritan, euskara ikasgaiak emateko eta ikasteko hizkuntza gisa erabiltzen da, baina ikastetxetik kanpo ikasleen eguneroko komunikazioa erdarazkoa da. Horrek zaildu egiten du euskararen erabilera praktikoa. Askorentzat, ikasteko estimulu nagusi (ia bakarra) akademikoa da. Horrez gain, gaur gaurkoz, eskolak ez du modu egituratuan betetzen euskarazko mundu erreferentzialaren transmisioa gauzatzeko funtzioa.

2) Irakasleen gaitasuna eta atxikimendua: irakasle guztiek ez dute euskara maila egokia klaseak emateko, eta askok ez dute euskararen inguruko motibazio sendorik ere.

3) Aniztasun kulturala eta migrazioa: azken urteotan, gero eta handiagoa da migratzaileak eta haien seme-alabak hezkuntza sisteman dituzten familien kopurua. Horrek kultur eta hizkuntza aniztasun handia sortu du ikasgeletan, eta, testuinguru horretan, gaur egun dauden hizkuntza errefortzurako baliabide urriekin, erronka bihurtzen da euskaraz irakastea eta komunikazio aktiboa euskaraz egitea.

5. Euskalduntze alfabetatzea

Euskaltegiek helduen euskalduntze-alfabetatzean eginkizun nabarmena izan dute Bilbon, eta euskararen transmisio kulturalerako tresna garrantzitsu bihurtu dira. Helduaroan euskara ikasteko aukera zabala dago Bilbon, eta gero eta erraztasun handiagoak daude horretarako, baita laguntza ekonomikoen aldetik ere.

Hala ere, helduen euskalduntze-alfabetatzean, Bilbon ikasle potentzialen multzoa oso handia dela kontuan izan arren, urtean matrikulatzen diren ikasle kopuruari bultzada eman behar zaio oraindik. Zenbait arrazoi antzematen dira euskara ez ikasteko orduan:

- Motibazioaren bilakaera: Euskara ikasteko motibazio nagusia gero eta gehiago da instrumentala, hau da, lan esparru publikoan aritzeko behar praktikoki lotutakoa. Aldiz, atxikimendu afektibo, identitario edo kulturean oinarritutako motibazioa nabarmen ahuldu da.
- Kostu ekonomikoak: matrikulen prezioa oztopo nabarmena da herritar askorentzat; eta dirulaguntza sistema oso bat egituratuta egon arren, matrikulen prezioa aurreratu behar izatea ere oztopo ekonomikotzat har daiteke.
- Kontziliazio-arrazoiak: norberaren bizitza, familia eta lana euskara ikastearekin uztartzeko ahalegin pertsonala.

¹⁰ Iturria: Eusko Jaurlaritza. Hezkuntza Saila.

- Migranteen kasuan, kontuan hartzeko moduko aldagaiak dira, besteak beste, jatorrizko hizkuntzetan duten alfabetizazio maila, norbanako bakoitzaren administrazio egoera erregularizatzeko prozesua zertan den, edo euskara ikasteak zein unetan betetzen duen posizio bat euren lehentasunen hurrenkeran (lehentasuna bizirautea denean, askotan).

6. Euskararen erabilera

Gehiago edo gutxiago baina euskara egunerokoan erabiltzen dutenen ehunekoa hazi egin da Bilbon, % 9,5etik % 24ra 30 urtean. Nolanahi ere, euskararen erabilera sendoa —euskara gaztelania baino gehiago edo berdin— egiten dutenen ehunekoa askoz ere txikiagoa da eta, bilakaera ere, mugatuagoa izan du: % 1,4tik % 6,5era pasa da.¹¹ Bestalde, euskararen kale erabilera, % 3,5ekoa da 2021eko azken neurketaren arabera, 0,8 puntu gutxiago 1991n baino.¹²

Ettxeko erabilerari dagokionez, goranzko joera dago: euskara bakarrik erabiltzen duten familien ehunekoa % 1,5etik % 3,3ra igo da, eta euskara eta gaztelania berdintsu erabiltzen dituztenen kopurua % 4tik % 7,5era.¹³

Jatorriz Bilbokoak ez diren baina Bilbora datozen euskaldunen eragina nabaritzen da eta Bilboko eta auzoetako jai-giroan, euskarak eta euskal kulturak eguneroko bizitzan baino presentzia handiagoa dute.

Hala ere, euskararen erabileraren hutsunerik nabarmenena euskaldunen arteko harreman informaletan gertatzen da. Berezi, hizkuntza espontaneotasuna eskatzen duten testuinguruetan nabari da gabezia: lagunen arteko elkarrizketetan, zaletasunetan, sentimenduak eta emozioak adierazteko uneetan... Egoera hori bai helduen eta bai gazteen artean agertzen da, baina kezagarriena da ikasketa-prozesuan murgilduta dauden ume eta gazteen artean ematen den erabilera urria.

Horrez gain, badaude hobetu beharreko beste bi arlo:

- Erreferentziazko espazioak: Bilbon ez dira nahikoa euskaraz aritzeko erreferentziazko espazioak —euskarazko harreman naturalak garatzeko aukera ematen duten gune identifikagarriak— arnagune modura funtzionatzen duten guneak. Espazio horiek sortu, identifikatu eta zabaldu egin behar dira, bai gazteentzat eta umeentzat, baita helduentzat ere.
- Topagune inklusiboak: Euskaraz dakitenen eta ez dakitenen arteko topaguneak behar dira, non bi hizkuntzak —euskara eta gaztelania— modu naturalean erabil daitezkeen. Horrelako espazioek aukera eman beharko lukete gaztelaniatik euskararako ibilbidea

¹¹ Iturria: VII. Inkesta Soziolinguistikoa, 2021.

¹² Iturria: Hizkuntzen Erabileraren Kale Neurketa 2021

¹³ Iturria: Eustat, Biztanleriaren eta Etxebizitzaren Zentsuak.

errazteko, euskara maila ez perfektua duten pertsonak beren gaitasuna beldurrik gabe praktikan jartzeko, eta akatsak egiteko beldurra gainditzeko.

7. Euskalgintzaren ekimena

Euskararen erabileran eman diren aurrerapausoetako asko euskalgintzaren eremuko eragileen ekimenagatik izan dira eta garrantzitsua da Udalaren eta euskararen sustapenean jardun duten eragileen arteko elkarlana eta koordinazioa sendotzea, indarrak batuta gauza gehiago lortzen direlako.

8. Aisia eta kirola

Bilboko Udalak azken urteetan zabaldu egin du ume eta gazteei zuzendutako euskarazko aisialdi- eskaintza, zenbait programa eta jardueraren bidez. Ekimen horiek bi modutan garatu dira: alde batetik, Udalak berak zuzenean sustatutako jardueren bidez; eta bestetik, hitzarmenen bidez, beste erakunde batzuekin elkarlanean antolatutakoen bidez.

Bestalde, kirol taldeekin martxan jarri diren programa eta esperientziek erakutsi dute kirol entrenatzaileei euskara erabiltzeko tresnak eskaintzeak eta trebakuntza emateak eragin positiboa duela euskararen erabileran.

Hala ere, Bilboko kirol elkarte eta klub askotan, entrenatzaileen euskara gaitasuna handitu behar da, zailtasunak izaten dituztelako askok. Kirol eremuek herritar ugari erakartzen dituzte — bereziki, euskararen ikasketa-prozesuan dauden ume eta gazteak—, eta, testuinguru horretan, entrenatzaileen ezagutza-falta hori euskararen erabilera sustatzeko oztipoa izan ohi da.

Aisialdi arloko jardueretan ere antzeko egoera ikusten da: zenbait ekintza euskaraz eskaintzen diren arren, ez da beti bermatzen begiraleek euskararen ezagutza nahikoa dutenik, ezta euskararekiko atxikimendu edo erabilera aktiboa dutenik ere.

Bestetik, *“Bilboko DBHko ikasleen aisialdi ohiturak, 2023”* ikerketaren arabera, euskararen presentzia oso apala da Bigarren Hezkuntzako ikasleen eskolaz kanpoko jardueretan. Ikasleen % 8,8k soilik egiten ditu aisialdiko ekintzak nagusiki euskaraz, eta % 12,6k euskaraz eta gaztelaniaz neurri berean.¹⁴

9. Eremu sozioekonomikoa

Belaunaldi aldaketa nabaritzen ari da eta lan munduan sartzen ari diren langile gazteek, orokorrean, aurreko belaunaldiek baino euskararen ezagutza-maila handiagoa dute. Dena dela, ikasketen baitan laneko praktikak euskaraz burutu ahal izateko eskaintza, oraindik ere, urria da. Oro har, esan daiteke lan munduko giro, inertzia eta ohiturek ez dutela baliatzen profesional gazteek duten potentzialitate euskalduntzailea.

¹⁴ Iturria: Bilboko Udala.

Izan ere, euskaraz aritzeko aukera eskaintzeak balio erantsia dakar merkataritza, ostalaritza eta zerbitzuen sektorean. Euskaraz komunikatzeak gertutasuna eta konfiantza sortzen ditu bezeroekin.

Horri lotuta, Bilbon euskararen erabilera sustatzeko zenbait ekimen garatu dira azken urteetan. Alde batetik, Biribilko egitasmoaren baitan eskaintzen diren euskara ikastaroek ospea irabazi dute zenbait eragile ekonomikoren artean. Bestetik, Euskaraz barra-barra bezalako ekimenek establezimenduetan euskararen presentzia ikusgarriago bihurtzea lortu dute, bezeroei euskara erabiltzeko aukerak erakutsiz eta giro euskaldunagoak sustatuz.

Hala ere, arlo sozioekonomikoan, gabeziak antzematen dira langileen euskararen ezagutza-mailan. Gabezia horiek, aipagarriak dira, bereziki, merkataritza eta ostalaritzako langileen artean, sektore horiek eskaintzen dituzten lan baldintzak direla eta, geroz eta zailagoa delako bertan lan egiteko prest dauden langileak lortzea eta are zailagoa oraindik euskaldunak izatea nahi bada.

Sarritan, pertsonen arteko aurrez aurreko lehen harremanetan (dendetan, ostalaritzan, zerbitzuetan....), euskaldunek ez dute euren burua euskalduntzat agertzeko joerarik, hau da, ez dira euskaldun modura identifikatzen aurrean duten solaskideari lehen hitza euskaraz eginez.

Beste alde batetik, hautematen da euskarari pisu handiagoa eman behar zaiola Bilbon izaten ari den garapen turistikoan: hainbat dira turistei begira antolatzen diren zerbitzu eta ekimenak eta horietan euskararen presentzia handitu beharra dago.

10. Kulturgintza eta kultur eskaintza

Bilakaerari erreparatuta, azken urteetan aurrerapausoak eman dira Bilboko kulturgintzan. Euskarazko eskaintza kulturala zabaldu egin da, eta gero eta programazio gehiago eskaintzen da euskaraz. Horren ondorioz, lehen baino herritar gehiagok hartzen du parte euskarazko jardueretan, eta horrek euskal kulturaren presentzia indartu du hirian.

Hala ere, Bilboko Udalak sustatutako eskaintzaren inguruan ondoko eremuak hobetu behar dira: eskaintzan eta programazioan euskararen presentzia areagotzea; euskarazko jardueren ordutegia egokiagoa izatea; euskarazko ekintzak benetan euskaraz izatea osorik; Udalak kontratatutako enpresei dagokienez, irizpideen inguruko jarraipena egitea; euskarazko ekitaldiek zentraltasuna izatea eta ikusgarritasuna ematea.

11. Atzeritar jatorriko herritarrak

Bilbora bizi eta lan egitera etorritako migratzaileen kopurua asko igo da (%15,4ra iritsi da 2023an)¹⁵ eta joera goranzkoa da, beraz, datozen urteetarako erronkarik handienetakoa dugu pertsona hauentzat euskara izatea elementu integratzailea eta erraztailea. Hori dela eta, estrategia egokiak, sistematikoak eta integralak landu behar dira, pertsona hauek euskal kulturara eta euskarara hurbiltzeko.

¹⁵ Iturria: Eustat. Biztanleen Udal Erroldaren Estatistika.

Gainera, atzerritar jatorriko herritarren artean badaude euskararekiko jarrera positiboak, batez ere guraso diren pertsonen artean. Askok euskara eta euskal kultura bertako errealitatea ezagutzeko eta gizartearen integratzeko tresna gisa ikusten dituzte. Interesa eta hurbiltasuna igartzen zaie, eta horrek aukera ematen du euskararen aldeko jarrerak indartzeko eta sustatzeko.

Bilboko Udala hasita dago eremu hau jorratzen, baina erronkaren tamaina ikusita, gaur-gaurkoz ibili gabeko bideetan urratsak sendo eman behar ditu beste eragile batzuekin batera; honakoak izan daitezke adibide batzuk: etorri berrien egoera eta beharrak kontuan hartzen diren harrera-protokoloak osatu hizkuntzaren ikuspegia txertatuta; euskara ikasteko baliabide egokiak eskaini (dirulaguntzak, ikastaroak, haurrentzako errefortzu ikastaroak...) eta abar.

12. Hedabideak eta eremu digitala

Bilbon badaude euskara hutsez jarduten duten tokiko hedabideak, eta ekarpen handia egiten diote euskaldunen komunitatea trinkotzeari. Baina komunikabide entzutetsuenak gaztelania hutsezkoak edo ia hutsezkoak dira.

Tokiko euskarazko hedabideak estrategikoak diren aldetik, komenigarria da baliabideak ematea sendotasuna izateko eta hartzaile gehiagorengana heltzeko.

Bestetik, komunikazio digitalean, euskararen presentzia eta edukien erakargarritasuna indartu beharra dago, batez ere belaunaldi gazteen kultur kontsumoaren ohiturak kontuan hartuta. Gazteen ikus-entzunezkoen kontsumoa gero eta gehiago Internet bidezko formatu "nahierakoetan" oinarritzen da (streaming, sare sozialak, plataformak...), eta euskarazko eskaintzak ez du oraindik lehiakortasun maila nahikorik esparru horietan.

13. Euskararen normalizazioa Udalean

Azken urteetan euskarari bultzada eman zaio Udalean. Udaleko ordezkarien artean euskararen ezagutza-mailak gora egin du, eta, bestetik, inbertsio eta apustu handiagoa egin da euskararen sustapenean.

Udalak baditu tresnak eta baliabideak eguneroko jardunean euskararen erabilera sustatzeko: Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana eta Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak, besteak beste.

Udalaren irudiarekin zerikusia duten elementu gehienetan euskararen presentzia neurri handi batean bermatuta dago tratamendu elebidunaren bidez, eta herritarrekin harreman zuzena duten zerbitzu eta ataletan euskara erabiltzeko aukera asko zabaldu da, bai aurrez aurreko ahozko zerbitzuetan, baita eskariak euskaraz aurkezteko Udalak eskaintzen dituen formulario eta agirietan ere.

Hobetzekoan artean leudeke, batetik, lan hizkuntzaren esparrua, oraindik ere gaztelaniak baitu nagusitasuna eremu honetan. Bestetik, hizkuntza paisaiari dagokionez eta ekitaldi handiei erreparatuta, euskarak presentzia eta ikusgarritasun handiagoa behar du, eta, horrekin lotuta, euskara irudi folkloriko eta tradizionalarekin horrenbeste ez lotzea eta marketan eta ekimenen izenetan euskararen erabilera bultzatzea.

Azkenik, aipatu euskarazko eskaintza handitzea bilatu behar dela, eta horretarako hainbat arlotan sorkuntza bultzatu. Euskararen erreferente pertsonalak ikusarazi behar dira, eredugarriak izan daitezkeenak, bai gertukoak baita sozialak ere, erakargarritasuna eta prestigioa handitzeko.

4. Arlo estrategikoa

4.1. Misioa

Bilboko Udaleko Euskarako Zuzendaritzaren misioa da euskararen erabilera normalizatzea eta sustatzea hiriko esparru guztietan, bilbotarren hizkuntza eskubideak bermatzeko eta euskararen presentzia indartzeko. Horretarako, herritarrek euskara modu naturalean erabiltzeko aukerak ugarituko ditu, Udalaren eta herritarren arteko komunikazio elebiduna bermatzea ahalbidetuko du, eta euskararen prestigioa eta balio soziala bultzatuko ditu gizartearen kohesio eta kultur aniztasunaren testuinguruan.

Horrez gain, euskararen normalizazio prozesuan antzematen diren gabezia eta hutsuneak identifikatu eta betetzeko neurriak hartuko ditu, eta datozen erronka soziodemografiko eta sozioekonomiko berriei euskararen normalizazioaren ikuspuntutik erantzuna emango die, Bilboko herritarren euskararekiko atxikimendua areagotuz eta hiriko egoera zehatza eta ezaugarri bereizgarriak aintzat hartuz.

4.2. Bisioa

2035. urtean gaude eta Bilbon...

1. Hitzun kopurua, erabilera eta aktibazioa

- Euskal elebidunen eta elebidun orekatuen kopurua hazi da, zenbaki absolutuetan eta ehunekoetan.
- Euskal hitzun aktibo gehiago dago.
- Euskaraz modu naturalean funtzionatzen duten gune soziofuntzional gehiago daude.

2. Transmisioa eta euskara ikastea

- Euskara ikasten duten haur, gazte eta helduek ikasketa eta barneratze sendoagoa dute.
- Euskararen familia bidezko transmisioak goranzko joera dauka urtez urte.
- Ezagutzaren unibertsalizazioan atzeraezinezko urratsak eman dira eta euskara ikastea doakoa da.

3. Gizarteratzea eta aniztasuna

- Etorri berriei euskal komunitatean integratzeko bidea eman zaie, euskararen mundura erakarrit.

4. Irudia eta hirian presentzia

- Euskarak eta euskal komunitateak irudi eta prestigio handiagoa dute, eta horrek erakarmen-ahalmena ematen dio.
- Euskararen presentzia handiagoa da arlo sozioekonomikoaren sektore guztietan.

5. Aisialdia eta kultura

- Euskarazko kultur, kirol eta aisialdi eskaintza zabala eta erakargarria dago adin guztietako herritarrentzat.
- Haur eta gazteen aisialdi antolatuko eta kiroleko eskaintza gehiena euskaraz da.

6. Komunikabideak eta ikusgarritasuna

- Euskarazko Bilboko hedabideak sendoago daude eta ikus-entzule gehiago dute.

7. Institutuzioak eta elkarlana

- Elkarlan eta koordinazio eraginkorra dago Udalaren eta euskararen inguruan lanean diharduten eragile eta mugimendu sozialen artean.
- Bilboko Udalaren jardunean euskarak zentraltasun handiagoa du, eta hizkuntza normalizazio prozesuan Udalak lidergo sozial eta instituzionala du.

5. Bilboko AROA Plan Estrategikoa 2025-2035

Bilboko Udaleko AROA Plana (2025–2035) Eusko Jaurlaritzak diseinatutako *Euskara indarberritzeko eta euskaldunok ahalduzko AROA Marko Estrategikoa 2024-2034* txostenean oinarritzen da. Planak eskema nagusi bera jarraitzen du, baina Bilboko egoerara egokitu eta moldatu da, bertako errealitate soziolinguistikoari erantzuteko.

Planaren oinarria AROA marko estrategikoan jasotako 7 ardatz dira. Ardatz horien barruan planteatutako erronkak bere horretan mantendu dira. Hala ere, lan-ildo eta ekimenen hautaketan egokitzapenak egin dira: zenbait ekimen Bilboko behar estrategikoei erantzuteko gako modura hautatu dira, eta beste batzuk ez dira landu, lehentasunezkoztat jo ez direlako edo testuinguruan tokirik izan ez dutelako.

Planaren garapenean, 5 ardatz estrategiko nagusi bereizi dira:

- Gobernantza
- Jarrerak/Motibazioa

- Ezagutza/Gaitasuna
- Erabilera/Elkarreragina
- Berrikuntza

Ardatz horien baitan jasotako erronkak zehaztu dira, eta erronka bakoitza lortzeko lan-ildoak eta ekimen zehatzak proposatu dira.

Horrez gain, beste 2 ardatz osagarri ere landu dira:

- Ikerketa/Sistematizazioa
- Komunikazioa/Hedapena

Ardatz horien barruan ere zenbait ekintza planteatu dira.

Plana aurretik egindako diagnostikoan oinarritu da (dokumentu honen 3. puntua), eta bertan identifikatutako beharrei erantzuteko lehentasunezko lan-ildo eta ekimenak nabarmendu dira. AROA plana 10 urteko epealdirako diseinatu da, eta proposatutako ekintzak lehentasun-mailaren arabera garatuko dira.

Halaber, plana moldagarria da: Bilboko errealitatea aldakorra denez, litekeena da datozen urteetan erronka berriak sortzea eta ekimen berriak martxan jartzea. Horregatik, urteroko jarraipena eta balorazioa egitea funtsezkoa izango da planaren eraginkortasuna bermatzeko.

Dokumentu honetan, hurrengo lerroetan, ardatz estrategiko bakoitzean oinarritutako proposamenak aurkeztu dira, 2035erako Bilbo euskaldunagoa lortzeko helburuarekin. Txostenaren amaieran, Bilboko AROA Planaren eskema gehitu da eranskin gisa.

5.1. ARDATZ ESTRATEGIKOA: GOBERNANTZA

Gobernantza da AROA planeko ardatz estrategiko garrantzitsuenetako bat, eta bereziki erabakigarria euskararen sustapen eta indarberritze prozesuan. Arlo honetan hartzen diren erabaki politikoek eragin zuzena dute hizkuntza-politikaren norabidean, prestigioan eta eraginkortasunean.

Erakunde publikoek eredu izateko ardura dute, bai hizkuntza-ohituretan, baita lidergoan ere. Diagnostikoan nabarmendu den bezala, Bilbok behar du euskarari zentraltasuna emango dion ikuspegia, hiriaren irudian islatu dadin eta herritarrek erreferente argiak identifika ditzaten. Horretarako, ezinbestekoa da jokabide eredugarriak erakustea eta erakundeetako funtzio eta jardunetan euskararen presentzia bermatzea.

Halaber, gobernantzaren eremuan ezinbestekoa da koordinazioa indartzea maila eta sektore desberdinen artean: administrazioen arteko elkarlana, erakunde barruko sail eta egituren

artekoa, eta baita gizarte-eragileekin partekatutako estrategia bateratuak ere. Indarrak batuz eta elkarlanean jardunez, emaitza sendoagoak eta eraginkorrakoak lortu daitezke.

Ardatz honen baitan hiru erronka nagusi planteatzen dira:

- ❖ Euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eraman.
 - ❖ Berariazko nahiz zeharkako hizkuntza-politika garatu, gainerako hizkuntzekin nahiz kulturekin bizikidetzan.
 - ❖ Euskararen biziberritzea munduko hizkuntza-aniztasunaren balioetan kokatu.
- ❖ 1. ERRONKA: euskararen normalizazioa agenda politikoaren erdigunera eraman.

1.1. Lan ildoak: herritarren hizkuntza-eskubideen aldeko politikak garatu.

Lan ildo honen helburua da **hizkuntza-eskubideak erdigunean jartzea**. Bilbon bizi diren euskaldunek hirian eroso eta oztoporik gabe euskaraz bizi ahal izatea da xede nagusia. Horretarako, erakunde publiko zein pribatuekin lankidetzan sustatuko da, hizkuntza-eskubideen inguruko kontzientzia eta ardura partekatuzko.

Udalan, **Euskararen Erabilera Normalizatzeko Plana** dago indarrean, eta haren garapenerako antolamendu-egiturak daude martxan. Zehazki, **5 Zuzendaritza Batzorde** daude, eragin-eremuen arabera antolatuta. Ekintza nagusietako bat izango da Zuzendaritza Batzorde horiekin lan egitea, batetik, Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideak betetzeko neurriak adosteko, eta bestetik, arlo bakoitzaren inguruko hizkuntza politika lantzeko.

1.2. Lan ildoak: koordinazioa eta osagarritasuna sustatu eremu instituzionalean zein sozialean.

Hizkuntza-politikaren eraginkortasuna handitzeko, koordinazioa eta osagarritasuna indartu behar dira eremu instituzionalean eta sozialean. Horretarako:

- Koordinazioa indartuko da **administrazioen artean** (beste hiriburuak, Bizkaiko Aldundia, Eusko Jaurlaritza) eta **administrazioaren barruan**, sail eta organoen artean.
- **Udalaren eta euskalgintzaren arteko harremanak** sendotzea proposatzen da, lankidetzan-esparruak identifikatu eta partekatutako ekimenak garatzeko.

Horrez gain, 2016tik martxan dagoen **Euskararen Aholku Batzordea** funtsezko foro gisa mantendu nahi da. Bertan, erakunde publiko, pribatu eta euskalgintzako ordezkariak biltzen dira urtean bitan, euskararen biziberritze estrategiak aztertzeko. Helburua da batzorde honen dinamismoa sendotzea.

1.3. Lan ildoak: euskararen biziberritzearen aldeko lidergoa eta konpromisoa indartu.

Euskararen biziberritze-prozesuak **lidergo eredugarria** eskatzen du, hizkuntza-jokabide eredugarriak agertzea, bai erakunde publikoaren aldetik, baita bertako arduradun politiko eta teknikoen aldetik ere. Horretarako, honako ekintzak planteatzen dira:

- **Sentsibilizazio saioak** eskaintzea lidergo-postuetan dauden arduradunei.
- Zuzendaritza Batzordeetan hauek lantzea:
 - Sailek hizkuntzei dagokienez izan beharreko **jokabide eredugarriak**.
 - **Euskararen sustapena zehar-lerro gisa** lantzeko estrategiak.
- **Jendarean aritzeko protokolo bat** garatzea.

Erakunde gisa, Udalaren egiteko estrategikoetako bat izango da **ordenantza eta erregelamenduetan euskararen ikuspegia** txertatzea. Horretarako, beharrezkoa da Udaleko sail eta erakundeekin elkarlanean aritzea, bakoitzaren lan-eremuan euskararen sustapenerako neurriak eta ekintzak definitu eta martxan jar daitezen.

❖ 2. ERRONKA: berriazko nahiz zeharkako hizkuntza-politika garatu, gainerako hizkuntzekin nahiz kulturekin bizikidetzan.

2.1. Lan ildoak: eremu soziolinguistikoetarako hizkuntza-politika berezituak garatu.

Bilboko auzoek ezaugarri soziolinguistiko eta soziodemografiko desberdinak dituzte. Hori kontuan hartuta, tokian tokiko hizkuntza-erronkei erantzuteko estrategiak landu nahi dira.

Honako ekintzak planteatzen dira:

- **Hiri plangintzako proiektuetan hizkuntzaren ikuspegia** txertatu, eta haren eragina sistematikoki aztertu.
- **Auzoetako demografia aztertu**, antolatzen diren ekintzak errealitate horretara egokitzeko eta xede-taldeak identifikatzeko.

2.2. Lan ildoak: zeharkako hizkuntza-politikak garatzeko estrategiak gauzatu.

Euskararen normalizazioak, gaur egun, lotura estua du erronka sozio-politiko zabalagoekin: genero berdintasuna, jasagarritasuna, inklusioa, kulturartekotasuna, herritarren partaidetza, berrikuntza eta digitalizazioa, garapen ekonomikoa... Lotura hori indartzeko honako ekintzak planteatu dira:

- **Zeharkako zuzendaritzekin aldebiko mahaia** eratzeko ahalegina egitea, sinergiak sortzeko eta euskararen sustapena beste arloetako politikekin uztartzeko. Horrek aukera emango du ikuspegi integratu eta eraginkorragoa garatzeko.

- **Udal Planetan euskararen ikuspegia** modu integratuan txertatzeko proposamenak lantzea.

❖ **3. ERRONKA: euskararen biziberritzea munduko hizkuntza-aniztasunaren balioetan kokatu.**

3.1. Lan ildoak: euskara munduko hizkuntza gutxituen testuinguruan ulertu eta ikuspegi hori gizarteratu.

Euskararen biziberritzea ez da fenomeno isolatua, baizik eta munduko hizkuntza-aniztasunaren testuinguruan ulertu behar den prozesua. Euskarak, hizkuntza gutxitu gisa, beste hizkuntza komunitate askorekin partekatzen du egoera eta erronka ugari, horregatik, bi ekimen proposatu dira lan-ildo honi dagokionez.

- **Hizkuntza lankidetzaren eremuan egindako lana sustatu.** Horretarako, batetik, 2030 Agendako eta Nazioarteko Zuzendaritzarekin elkarlana bideratuko da egitasmo berritzaileak sortzeko, eta, bestetik, euskararen kanpo-ekintzaren esparruan antolatzen diren ekitaldietan (ELEN Sarea, Etxepare Institutua...) parte hartuko da.
- **Garapen Iraunkorrerako Helburuekin (GIH) lerrokatuta lan egin.** Horretarako, UNESCO Etxearen 18. GIH (Garapen Iraunkorrerako Helburua) bultzatzeko ekimenetan parte hartzea aurreikusi da.

5.2. ARDATZ ESTRATEGIKOA: JARRERAK/MOTIBAZIOAK

Euskararen biziberritze prozesuan ezinbestekoa da hiztunen jarrerak, motibazioak eta hizkuntza-portaerak aintzat hartzea. Hizkuntzaren erabilera ez dago soilik gaitasunari lotuta; norbanakoen motibazio-mailak, euskararen inguruko pertzepzio sozialak eta hizkuntza hautatzeko ohiturek eragin erabakigarria dute.

Bilbon, azken hamarkadetan euskararen aldeko jarrerak indartuz joan diren arren, diagnostikoak agerian utzi du oraindik ere jarrera pasiboak direla nagusi. Hori dela eta, beharrezkotzat jotzen da euskara ikasteko eta erabiltzeko motibazioa hauspotzea, norbanakoen konpromisoa eta hizkuntza-aktibazioa sustatuz.

Horri erantzunez, ardatz estrategiko honek bi helburu nagusi lantzen ditu: alde batetik, euskararen aldeko jarrerak sendotzea eta hiztunen ahalduntzea bultzatzea; eta bestetik, euskararen eta euskal komunitatearen inguruko irudi positiboa eta ikusgarritasuna handitzea.

AROA planeko beste ardatz batzuen ekintzek ere, zeharka, jarreretan eta motibazioan eragina izango dute. Hala ere, atal honetan bereziki, jarreretan eta motibazioetan eragiteko ekintza zuzenak garatu dira, euskararen erabilera soziala errotu eta indartzeko asmoz.

Ardatz honen baitan bi erronka nagusi planteatzen dira:

- ❖ Euskararen aldeko jarrera areagotu eta hiztunen ahalduntzean, hizkuntza-ohituretan eta -portaeretan eragin.
 - ❖ Euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitu.
-
- ❖ 1. ERRONKA: euskararen aldeko jarrera areagotu eta hiztunen ahalduntzean, hizkuntza-ohituretan eta -portaeretan eragin.

1.1. Lan-ildoak: euskaldun izatearen kontzientzia eragin.

Lan-ildo honen baitan, batez ere sentsibilizazioan eragin nahi da eta euskara ikasteko, erabiltzeko eta transmititzeko motibazioak landu. **Euskal identitatea oinarri** hartuta, zenbait eremuko bilbotarren kontzientzia eragin nahi da honako ekimenekin:

- **Euskararen Nazioarteko Eguna** baliatu Bilbon euskarari eta euskal identitateari garrantzia, presentzia eta ikusgarritasuna emateko. Horretarako, zenbait ekintza antolatzea aurreikusten da urtero.
- Arlo desberdinetara bideratutako **sentsibilizazio kanpainak** antolatu eta zabaltu: familiak kontzientziatzeko seme-alabei euskara transmititzearen garrantziaren inguruan; bilbotarrak animatzeko euskara eta euskaraz ikastera; herritarrak ahalduntzeko lehen hitza euskaraz egitera eta abar.

1.2. Lan-ildoak: euskal hiztun edo komunitate ahaldundua erdiesteko bidea egin.

Diagnostikoan agertu den moduan, euskararen kontrako jarrera baino, jarrera pasiboa da nagusitzen dena. Hori dela eta, bilbotar **euskaldunak aktibatze eta hiriko euskal komunitatea sendotzeko**, garrantzitsua da ahalduntze prozesuak sortu eta dinamizatzea. Helburu horri eusteko planteatzen diren ekintzak honakoak dira:

- **Auzoetako euskara taldeak** dinamizatu eta saretu eta Euskaraldia bezalako egitasmoetan parte hartu.
- **Ahalduntze-tailerrak** eta **soziolinguistikari buruzko saioak** eskaini hiriko kolektibo desberdinentzat: elkarteak, ikastetxeak...

- **Bilboko euskararen historia soziala** landu euskara bilbotartasunarekin lotzeko eta motibazio sinboliko-afektiboa elikatzeko.

Euskal komunitatea ahalduztzeaz gain, haren **ikusgarritasuna lantzeko estrategiak** ere diseinatu eta garatu behar dira eta horretarako, bi norabidetan lan egin nahi da.

- **Hiriko turismoaren estrategian hizkuntzaren ikuspegia txertatu**, Bilbao Ekintzarekin lankidetzan, eta horri lotuta, **hizkuntza-paisaia** euskalduntzeko lanketa egitea aurreikusten da, kaleetan euskararekiko esposizio-maila handitzeko.
- Beste alde batetik, laguntza eta babesa ematen jarraituko zaie bai **Korrika** bezalako ekimenei, baita **euskara elkarteei** eta bestelako irabazi asmorik gabeko elkarteei ere, euskara sustatzeko antolatzen dituzten jarduerak egiten jarrai dezaten.

❖ 2. ERRONKA: euskarari eta euskal komunitateari buruzko pertzepzio positiboa eta ikusgarritasuna handitu.

2.1. Lan-ildoak: euskararen erakargarritasuna landu.

Ikusgarritasuna handitzeko erakargarritasunean jarri behar da fokoa eta bilbotarrak euskarara hurbiltzeko nahia pizte aldera, **erreferenteekin lan** egingo da, bai pertsonekin, baita erakundeekin ere. **Hizkuntza eguneroko bizitza garaikidearekin eta aurreratuarekin lotu** beharra dago eta prestigioa lortu. Horretarako, hiru eremu hauetan lan egin nahi da:

- **Proiektzio handia duten erakundeak (Athletic Club, Bilbao Basket...) identifikatu eta egitasmo bateratuak antolatu.** Horrez gain, haien ekitaldietan euskara sustatzeko irizpideak eman nahi zaizkie, euskararen presentzia eta erabilera bermatzeko eta areagotzeko. Bestetik, interesgarria da **euskarak hirian espazio gehiago irabaztea** eta horretarako estrategiak aztertuko dira.
- **Euskarari zentraltasuna eta ikusgarritasuna eman hiriko oihartzun eta esposizio handiko ekitaldi eta egitasmoetan.** Horretarako, Udaleko beste sail eta erakundeekin lan egingo da eta elkarlanean zenbait neurri hartu eta zenbait irizpide ezarri. Ekitaldietako izenetan **euskararen erabilera** bultzatuko da eta euskarari eta euskaldunei **irudi folklorikoa** bakarrik ez emateko lanketa ere bideratuko da.

2.2. Lan-ildoak: euskarara hurbildu ez diren herritarrek euskarara erakarri.

Lan-ildo honi dagokionez, atzerritar jatorriko herritarren harrerari jarri nahi da fokoa. Etorri berri direnei euskara ezagutarazi nahi zaie eta dauden aukeren eta baliabideen berri eman. Behar

bezalako harrera emateko ezinbestekoa izango da **Harreragunerekin elkarlanean** aritzea eta lankidetzan zenbait egitasmo martxan jartzea.

Hauek dira landu nahi diren gaiak: hezkuntza eredu euskaldunetan matrikulatzeko aholkularitza, Bilboko elkarteekin batera harrera linguistikoaren eta kulturalaren sustapena eta abar.

Horrez gain, asmoa da etorri berrientzako harrera linguistikoaren gida sortzea.

5.3. ARDATZ ESTRATEGIKOA: EZAGUTZA/GAITASUNA

Ardatz hau lehentasunez landu beharrekoa da hurrengo urteetan, izan ere, ezagutza hutsa ez da nahikoa: erabilera handitu nahi bada, herritarrek euskaraz eroso, modu naturalean eta segurtasunez erabiltzeko gaitasuna izan behar dute. Hori da, hain zuzen ere, erronka nagusietako bat Bilbon.

Datuek zera adierazten dute: termino erlatiboetan, hiriko biztanleriaren %30,6 da euskal hiztuna, baina euskaldun horien artean, hirutik bik errazago hitz egiten dute gaztelaniaz. Horrek erakusten du gaitasun erlatiboaren alorrean oraindik hutsune nabarmenak daudela eta ezinbestekoa dela horretan sakontzea.

Ardatz honen helburua da, hortaz, ezagutza handitzeaz gain, hizkuntza-gaitasuna eta erraztasuna sendotzea, transmisioa indartzea eta ikaskuntza-aukerak zabaltzea. Arreta berezia eskainiko zaio atzeritik etorritako pertsonen euskara ikasteko baliabideak eskaintzeari ere. Horretarako, lau erronka nagusi identifikatu dira, eta horien bidez herritarren hizkuntza-ibilbideetan eragiteko lan-ildo eta ekintza zehatzak proposatzen dira.

Ardatz honen baitan 4 erronka nagusi planteatzen dira:

- ❖ Euskararen eta euskal kulturaren transmisioan eragin.
 - ❖ Euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu.
 - ❖ Euskarara hurbiltzen diren atzeritar jatorriko herritarren kopurua handitu.
 - ❖ Euskararen ezagutza orokortzeko bidean, erraztasuna (gaitasun erlatiboa) berariaz zaindu.
-
- ❖ 1. ERRONKA: euskararen eta euskal kulturaren transmisioan eragin.

1.1. Lan-ildoak: familia-transmisioa bermatzeko bideak jarri.

Nahiz eta datuek azken urteetan zertxobait hobera egin duten, oraindik lan handia egin beharra dago euskararen erabilera Bilboko etxeetara ere zabal dadin. Horretarako, aukera eta baldintza hobeak ditugu gaur egun eta horiek baliatu nahi dira apurka-apurka portzentajeak igotzen joateko.

Euskararen biziberritzeari dagokionez, arlo oso garrantzitsua da transmisioarena. Hori dela eta, sentsibilizazioarekin eta esku-hartzeekin lotutako ekintzak planteatu dira:

- **Euskara ondorengoei transmititzearen inguruko sentsibilizazio kanpainak eta esku-hartzeak garatu**, gurasoek informazioa eta baliabideak izateko eta esperientziak eta bizipenak partekatu ahal izateko.
- **Egitasmo espezifikoak garatu haurrak jaio aurretik eta nerabegarora heldu bitartean**: familien arteko ekintzak, hitzaldiak, haurren zaintzaileekin dinamikak eta abar. Horrekin batera, euskara lehen hizkuntza izatetik etxeko hizkuntza izatera pasatzeko estrategiak eta programak sortuko dira.
- **Sentsibilizazio lan berezia egin nahi da haurtzaindegi eta haurreskolekin**, etxeko txikienek bertan pasatzen baitute hainbat denbora.

1.2. Lan-ildoak: hezitzaileen gaitasuna handitu hizkuntza-kudeaketan zein ezagutza eta praktika soziolinguistikoan.

Euskararen transmisio eraginkorra lortzeko, ezinbestekoa da esparru ez-formaletan diharduten eragileen gaitasuna sendotzea. Hezitzaile eta entrenatzaileek —aisialdiko zein kiroleko testuinguruetan— eguneroko harreman estua dute haur eta gazteekin, eta haien hizkuntza-portaerak eredu indartsuak dira sozializazio prozesuan. Hortaz, funtsezkoa da profesional horiek hizkuntza-kudeaketa egokirako baliabidez eta jakintzaz hornitzea, bai eta euskararen erabilera sustatzeko konpromiso aktiboan trebatzeko aukerak eskaintzea ere. Behar horri erantzuteko, bi ekintza nagusi garatu nahi dira:

- **Udalak kudeatutako eta antolatutako ekipamenduetako eta ikastaroetako hezitzaileekin** formazio soziolinguistiko espezifikoak jorratu eta Hizkuntza Ofizialak Erabiltzeko Irizpideen inguruko prestakuntza eskaini.
- Egitasmo bat martxan jarri **heziketa ez-formaleko profesionalen** (kirol entrenatzaile, begirale, aisialdiko monitore, eskolatik kanpoko ikaskuntza) **gaitasuna handitzeko** hizkuntza-kudeaketan zein ezagutza eta praktika soziolinguistikoan.

❖ 2. ERRONKA: euskara irakatsi eta ikasteko aukerak indartu eta berriak sortu.

2.1. Lan ildoak: ezagutza orokortzeko eta espezializatzeko baliabideak handitu eta tresnak sortu.

Lehentasunezko ildoak izan ez arren, garrantzitsua izango da hurrengo urteetan ere ezagutza orokortzeko eta espezializatzeko baliabideak handitu eta tresnak sortzea, eta horren baitan, **hizkuntza eta kultur ondarea jasotzea eta gaur egungo beharrei erantzuteko baliabideak sortu**

nahiz zabaltzea. Hori horrela, lanean jarraituko da euskararen corpusa, terminologia, toponimia, historia soziala eta abar lantzeko, Bilboko jatorrizko toponimia gizarteratzeko eta ezagutarazteko ekintzak garatzeko.

2.2. Lan-ildoak: euskara ikasteko aukera berriak sortu eta baldintzak erraztu.

Lehentasunezkoa izango da erronka honen baitan **tokian tokiko beharrei erantzuten dieten euskalduntze prozesuak aztertzea eta beharren arabera eskaintzak sortzea.** Helburu nagusia da euskara ikasteko aukera berriak sortzea, dauden aukerak egokitzea eta ahalik eta erraztasun handienak ematea euskara ikasi nahi duten guztiei. Lan horretarako gakoa izango da Bilboko euskaltegiekin egitasmo bateratuak gauzatzeko aukerak jorratzea. Euskaltegiekin elkarlana indartzearekin batera, honako ekintzak egitea aurreikusi da:

- **Euskara ikastea doakoa eta unibertsala** izateko bidea egiten jarraitzea. Eremu honetan aurrerapauso garrantzitsuak egin dira Bilbon, eta bide horri ekin nahi zaio.
- **Xede talde edo kolektibo estrategiko eta espezifiko** egokitutako egitasmoak antolatu. Hauek dira, besteak beste, talde horietako batzuk: gurasoak, kirol monitore eta entrenatzaileak, aisialdiko hezitzaileak, jubilatuek, etorri berriak eta bestelako kolektibo zaurgarriak.
- **Euskaltegietatik kanpo mintzamena** lantzeko dinamikak antolatzen jarraitu nahi da.
- **Merkataritza eta ostalaritzako establezimenduetako langileentzako ikastaro egokitu eta bereziak** eskaini.

❖ 3. ERRONKA: euskarara hurbiltzen diren atzerritar jatorriko herritarren kopurua handitu.

3.1. Lan-ildoak: atzerritar jatorriko herritarrak euskara ikas dezaten erraztasunak zein baliabideak eman.

Bilbo hiri anitza da eta gero eta gehiago dira atzerriatik etorritako herritarrak. Hori dela eta, ezinbestekoa da euskara ikasteko aukerak eta erraztasunak pertsona horiengana iristea, euren integrazioa eta parte-hartze aktiboa bermatzeko.

Lan-ildo honen helburu nagusia da atzerritar jatorriko herritarrei euskara ikasteko laguntza eta baliabide espezifikoak eskaintzea, euren egoera pertsonala, jatorria, ezagutza maila eta interesak kontuan hartuta. Horretarako, honako ekintzak garatzea aurreikusten da:

- **Haur eta gazte etorri berrien ikaskuntza prozesuak errazteko esku-hartzeak diseinatu** euskara ikasteko eta erabileran konfiantza hartzeko. Horrela, ikaskuntza prozesua indartu eta eskolako integrazioan lagunduko da.
- **Lanbide Heziketan etorri berriak euskarara hurbiltzeko programak garatu**, lan munduan sartzen direnean baliabideak eta tresnak izan ditzaten.
- Harreragunerekin elkarlanean, atzerritar jatorriko herritarrak **euskara ikasteko aukeren inguruan informatu** nahi dira, informazioa eta baliabideak eman.

- ❖ 4. ERRONKA: euskararen ezagutza orokortzeko bidean, erraztasuna (gaitasun erlatiboa) berariaz zaindu.

4.1. Lan-ildoak: euskal elebidunen eta elebidun orekatuen ehunekoa igo, bereziki gazteena.

Bilbotar asko, euskaraz jakin arren, hobeto moldatzen dira gaztelaniaz eta hori izaten da gutxiago erabiltzeko arrazoia. Horregatik, helburua da gazteek **euskara modu errazago eta naturalagoan** erabiltzea, segurtasun handiagoarekin. Horretarako, honako ekintzak bideratuko dira:

- **Hezkuntza arloko eragileekin elkarlana:** lankidetzak indartuko da ikastetxeekin, irakasleekin, Berritzeguneko kideekin, guraso elkarteekin eta abar hezkuntza-eremuko beharrak identifikatzeko eta euskararen gaitasuna eta erabilera sustatuko duten ekintza eraginkorrak diseinatzeko.
- Hezkuntzako eragileen lankidetzaren bidez, honelako jarduerak egitea aurreikusten da, besteak beste: **euskararen ezagutza modu ludikoan lantzeko programak** eta **haur eta gazteen ahozotasuna eta adierazkortasuna** lantzeko programak.

5.4. ARDATZ ESTRATEGIKOA: ERABILERA/ELKARRERAGINA

Nahiz eta ezagutzaren datuek urtero gora egin, ez da kontu bera gertatzen erabileraren datuekin. Azken urteetan ez da goranzko bilakaerarik izan. Bilbotar askok, nahiz eta euskara jakin, erraztasun handiagoa dute gaztelaniaz aritzeko, beraz, haren erabilera nagusitzen da. Egoera horren aurrean, garrantzitsua da adierazkortasuna lantzea eta kalean eta harreman informalean hizkuntza erabiltzeko aukerak zabaltzea.

Bilbok euskara natural eta eroso erabiltzeko arnagune soziofuntzionalak behar ditu, erabilera suspertu ahal izateko, eta, era berean, jadanik euskararenak diren babesguneak indartzea ere komeni da, galerarik egon ez dadin.

AROAK ardatz honetarako erronka bakarra planteatzen du eta horren barnean lan-ildo nagusi bat, baina hainbat arlo estrategiko biltzen dira lan-ildo bakar horren baitan. Arlo estrategiko bakoitza aztertu da eta ekintza zehatzak planteatu dira bakoitzerako.

Bilboren kasuan, atal honen baitan, bi arlo identifikatu dira lehentasunezko gisa: batetik, **arlo sozioekonomikoa**, non euskararen presentzia handitzeko ekintzak proposatzen diren, bai eremu publikoan baita pribatuan ere; bestetik, **aisialdi antolatua eta kirola**, non batez ere 16 urtetik beherako haurren eta gazteen hizkuntza ohituretan eragitea bilatzen den, euskarazko eskaintza eta erabilera bermatuz.

Ardatz hau eraginkorra izan dadin, ezinbestekoa da sailen eta instituzioen arteko lankidetzak, elkarte eta eragile sozialen parte-hartzea, eta herritarren inplikazio aktiboa. Euskararen erabilera finkatzeko, euskaraz bizitzeko aukerak errealitate bihurtu behar dira, eguneroko bizitzako esparruetan euskarak tokia eta funtzioa izan dezan.

❖ ERRONKA: Euskara eguneroko bizitzan eroso erabiltzeko berariazko estrategiak garatu.

1.1. Lan-ildoak: euskararen babesguneak indartu eta berriak sortu.

- **Zaintza guneetan euskararen erabileran eragin.** Lehentasuna izan ez arren, ardatz honen baitan aztertuko da aurretik landu gabeko esparru bat, zaintza guneena, hain zuzen. Horrekin lanean hasteko, Gizarte Ekintza Sailarekin lankidetzak bideratuko da zaintza-guneetako euskararen egoera eta beharrak identifikatzeko.
- **Euskara lan- eta zerbitzu-hizkuntza gisa orokortzeko prozesuak garatu erakunde publikoetan, eta euskaraz lan egiteko eta zerbitzua emateko aukeretan eragin erakunde pribatuetan.** Ekimen honen baitan, bi eremu banatzen dira: publikoa eta pribatua.

Eremu publikoari dagokionez, ekintza nagusi eta bakarra da Bilboko Udaleko Euskararen Normalizaziorako Erabilera Plana 2023-2027 garatzea. Bertan, euskara zerbitzu eta lan hizkuntza izateko hainbat lan-ildo zehazten dira eta lan hori betetzeko antolamendu ereduak eta egitasmoak martxan daude dagoeneko.

Eremu pribatuari dagokionez, bi ekintza nagusi aurreikusten dira. Batetik, **arlo sozioekonomikorako egitasmoa martxan jartzea Bilbao Ekintzarekin elkarlanean**. Egitasmo horren bidez, herritarrak bezero dituzten zerbitzu-enpresetan eragin nahi da, batez ere tokiko zerbitzu-etako establezimendu txikietan (janaridendetatik hasi eta auto-salmentarako kontzesionarioetara, txikizkako merkataritza egiten duten era guztietako saltokiak; ostalaritza sektoreko taberna, jatetxe eta ostatuak; osasuna eta zaintza pertsonalerako zerbitzuak; bidaia-agentziak, gimnasioak eta, herriguneetan kokatutako zerbitzuen beste abar luze bat). Bestetik, **pribatizatutako zerbitzu publikoetako**

hizkuntza-kudeaketan eragin nahi da, Bilboko Udalarekin lotura duten enpresa pribatuen azterketa eginez.

Azkenik, arlo sozioekonomikoaren lanketan, ezin da ahaztu **Bizkaiko Foru Aldundiarekin elkarlana** bideratzea eremu pribatuan eragiteko egitasmoak antolatzeko.

- **Aisialdi antolatuaren eta kirolaren esparruetan eskaintza zein erabilera bermatu eta orokortu.** Eremu honetan, batez ere, 16 urtetik beherakoengan jarriko da fokoa eta horiei lotutako esku-hartzeak lehenetsiko dira. Esparru honetan bi dira planteatzen diren ekintza nagusiak.

Batetik, **16 urtetik beherakoan aisialdi antolatuaren diagnostikoa egitea** eta aisialdian euskara sustatzeko egitasmoa martxan jartzea aisialdiko programazioa antolatzen duten beste sail eta eragileekin batera. Bestetik, **16 urtetik beherakoan kirol arloaren diagnostikoa egitea** eta kirolean euskara sustatzeko egitasmoa martxan jartzea Bilbao Kirolakekin elkarlanean.

Behin diagnostikoak eginda, horietan oinarritutako egitasmoak eta ekintzak jarriko dira martxan bi arlo hauetan euskararen presentzia eta erabilera areagotzeko eta horretarako beharrezkoak dira aliantzak eta lankidetzak. Kasu honetan ere aztertzeak izango dira arlo bietan aritzen diren elkarte eta klubak dirulaguntzak, pizgarriak, irizpideak, prestakuntza eta abar.

Erakunde publikoen eta sailen arteko lankidetzak ere beharrezko ikusten da eta proposatzen da Bizkaiko Foru Aldundiarekin kirol arloko egitasmoak antolatzea eta aisialdiko programazioa antolatzen duten Udaleko beste sailekin euskararen eskaintza eta erabilera areagotzeko estrategiak lantzea. Azken honekin lotuko litzateke honako ekintza hau: **aisialdiko gune monitorizatueta hartzaileek euskararekin duten kontaktua handitzeko egitasmoak** garatzea.

Arlo pribatuan ere eragin nahi da eta horretarako, **kirol klub eta akademia pribatuekin lanketa eta sentsibilizazioa** bideratu nahi da eta ekintzak euskaraz ere eskaintzeko erraztasunak eman.

Aisialdiaren esparruarekin bukatzeko, aipatu **euskarazko aisialdiaren agenda** osatu eta komunikatu nahi dela maiztasun zehatz batekin, bilbotarrek eskura izan ditzaten uneoro hiriko euskarazko jardueren berri eta haietako parte-hartzea handitu dadin.

- **Ingurune digitalean euskara erabiltzeko espazioak irabazi.** Udalak alor honetan kompetentzia nagusia izan ez arren, badu nola eragin eta asmoa da gazteek euskara ingurune digitalean erabiltzeko programak sustatzen edo antolatzen jarraitzea.

- **Euskarazko hedabideak bultzatu.** Hedabideak ere gakoa dira euskararen sustapenean eta haien jarduna bultzatu nahi da. Lehenik eta behin, Bilboko euskarazko hedabideekin elkarlana sustatu nahi da haien jarduna babesteko eta egonkortasunean eta garapenean laguntzeko, eta, horrekin batera, hiriko euskarazko hedabideak ezagutarazteko ekintzak jarri nahi dira martxan.
- **Euskarazko kultura produktuak sortu eta ezagutarazi, kontsumoa areagotzeko.** Alor hau eragin-eremu garrantzitsua da eta Udaleko Kultura Sailarekin elkarlanean aritzea izango da gakoa, helburuei ahalik eta ondoen eutsi ahal izateko. Proposatzen da batetik, euskarazko eskaintza eta programazioa (ikuskizunak, ikastaroak, tailerrak, hitzaldiak...) areagotzeko eta hartzaile kopurua handitzeko neurriak eta estrategiak lantzea, eta, bestetik, **euskarazko kultur sorkuntza eta sortzaileak sustatzeko eta areagotzeko egitasmoak** martxan jartzea. Beste ekintza garrantzitsu bat izango da euskarazko eskaintza duten kultur espazioak babestea eta haien programazioaren zabalkundean laguntzea.

Aipatutako ekintza horiez gain, jarraitu nahi da **bertsolaritzaren jarduna** geroratzeko lanari bultzada ematen.

- **Kontsumitzaileak eta zerbitzu publikoetako erabiltzaileak ahaldundu euskara erabil dezaten.** Horretarako, martxan jarriko da **lehen hitza euskaraz** izan dadin kanpaina zerbitzu publikoetako langileei eta erabiltzaileei zuzenduta, eta bestetik, eremu pribatuari lotutako **Euskaraz barra-barra** egitasmoarekin jarraituko da. Horrez gain, aurreikusita dago KIUB Kontsumitzaileen Udal Bulegoarekin lanketa burutzea, kontsumitzaileen hizkuntza eskubideen inguruan.
- **Bereziki 16 urtetik beherako gazteak lehenetsiko dira euskararen erabilera sustatzeko esku-hartzeak diseinatu eta garatzerakoan eta erakunde publikoek 16 urtetik beherako haur eta gazteentzat antolatzen dituzten eskola-orduz kanpoko jardueren ohiko hizkuntza euskara izan dadin ere neurriak hartuko dira.** Ekimen honen baitan bi ekintza planteatzen dira: Gazteria eta Kirol Sailarekin elkarlanean ume eta gazteentzako euskarazko programazioaren eskaintzarako irizpideak eta neurriak lantzea eta Bilboko ikastetxeetako orduz kanpoko jarduerak euskaraz izan daitezen kanpaina martxan jartzea guraso elkarteekin elkarlanean.
- **Arnasgune funtzionalak babestu.** Ekimen hau Bilboko Udalak gehitu du bere AROAn. Bilboko euskararen arnasguneak identifikatu nahi dira euskaldunen komunitatea trinkotzeko eta euskaldunen dentsitate handiko topaguneak eta uneak bultzatzeko, eta, bestetik, esku-hartze zehatzak diseinatu, auzoetako euskaldunen dentsitatea eta ezaugarriak kontuan hartuz.

5.5. ARDATZ ESTRATEGIKOA: BERRIKUNTZA

Gizartea aldatzen doan heinean, euskararen biziberritze prozesua ere aldatzen eta egokitzen doa, eta erronka sozialei erantzun berritzaileak eman behar zaizkie. Horretarako, beharrezkoa da lankidetzaren abiatzea euskarazko berrikuntza-ekosistemako eragileekin eta hori da hurrengo urteetarako Bilboko Udalak aurreikusita duen ekintza nagusia, ardatz honi dagokionez.

5.6. KUDEAKETA-ARDATZ ESTRATEGIKOA: IKERKETA/SISTEMATIZAZIOA

Euskararen biziberritze prozesuan beharrezkoak dira ikerketak. Gertatzen ari denaren ezagutza zientifikoa izan behar dugu, eta baita gizartearen argazki orokorra ere. Euskararen egoeraren berri emango diguten ikerketak eta metodologiak lantzen jarraitu nahi da, egoera eta argazki horien arabera egitasmoak diseinatu ahal izateko.

Plan honen baitan, jarraituko dugu hiriari buruzko datu soziolinguistikoak ikertzen, kale neurketak egiten eta aldiro bilakaerari buruzko azterketak garatzen. Eta, erronka berriak agertu ahala, beharrezko ikerketak abiatuko dira, behar sozial berriei ahalik eta erantzun eraginkorrena emateko.

5.7. KUDEAKETA-ARDATZ ESTRATEGIKOA: KOMUNIKAZIOA/HEDAPENA

Zenbait lan-ildo, ekimen eta ekintza proposatu dira plan honetan eta hortik garatuko dira hainbat egitasmo. Hori dela eta, oso garrantzitsua izango da horiek denak komunikatzea eta hirian hedatzea, ahalik eta bilbotar gehienei helarazteko euskararen biziberritzearen parte izateko aukera.

Lehen egitekoa izango da komunikazio kanal eta estrategia eraginkorren azterketa egitea, eta behin hori eginda, bide berriak erabiliko dira euskarazko eskaintza hirian zabaltzeko. Bestetik, Euskarako Zuzendaritzaren webgunea eta sare sozialak berriro eta indartzea da helburua, kanal horien eraginkortasuna eta erakargarritasuna handitzeko.

6. Zehar-lerroen lanketa AROAn

Politika publikoen diseinuan eta garapenean, zehar-lerroek funtsezko zeregina dute udal-proiektuak integralak eta inklusiboak izan daitezen eta horiek egitasmoetan txertatzeak ez die soilik arau eta balio etiko batzuei erantzuten; ekintzen kalitatea eta eragina ere nabarmen hobetzen ditu.

Zehar-lerroak ez dira atal isolatu edo osagarri hutsak: programen egituraren eta logikaren parte izan behar duten ikuspegi estrategikoak dira. Horregatik, haien txertaketa benetakoa eta sistematikoa izan dadin, beharrezkoa da prozesu osoan zehar kontuan hartzea, hasierako diagnostikotik hasi eta amaierako ebaluaziora arte:

- Programen diseinuan eta helburuetan
- Kontratazio-irizpideetan eta klausula sozialetan
- Izen-emate prozesuetan bilduko diren datuetan
- Komunikazio-kanpainen diseinuan eta hedapenean
- Jardueren dinamizazio eta metodologietan
- Ebaluazio- eta jarraipen-sistemetan

Hizkuntzaren normalizazioa bera ere udalaren zehar-lerroetako bat den heinean, eta beste udal proiektu eta planetan txertatzen den moduan, euskara sustatzeko helburu duten egitasmoetan ere lantzen da beste alorren ikuspegia. AROAko Gobernantza ardatzari lotuta honako ekintza jaso da: *Aldebiko mahaiaik eratzea zeharkako sailekin, sinergiak lortzeko*. Hori dela eta, alor guztien lanketarako, zehar-lerro bakoitzari dagokin zuzendaritzarekin elkarlana bideratuko da, aholkularitza izateko eta balio eta politika guztiak modu egoki eta koherentean sustatzeko.

Hauek dira AROA Planean planteatu diren ekintza guztietan txertatuko diren zehar-lerro nagusiak:

Genero berdintasuna: egitasmo guztietan emakumeen eta gizonen arteko parte-hartze orekatua bermatuko da, eta bereziki emakumeen parte-hartze aktiboa sustatuko da. Horri lotuta, parte-hartzeari dagozkion datuen bilketan, genero aldagaia txertatuko da sistematikoki. Era berean, emakume erreferenteen presentzia ikusgai egiteko ekimenak bultzatuko dira. Gainera, ekintzak programatzean, ordutegiak kontuan hartuko dira, zaintza beharrekin oztoporik ez sortzeko.

Jardueretan, sexuaren araberako rol eta estereotipoak ez erreproduzitzeko lanketa zehatza egingo da, eta aurkezpenetan, kanpainetan, irudietan zein ahozko eta idatzizko komunikazio guztietan hizkera inklusiboa erabiliko da.

Bestalde, emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko protokoloak garatuko dira, Udalarekin elkarlanean ari diren elkarte eta enpresekin batera. Horrez gain, LGTBIQ+ kolektiboaren errealitatea kontuan hartuko da eta kolektibo honen inklusioa eta eskubideen defentsa sustatzeko neurriak hartuko dira. Aniztasun afektibo-sexual eta generikoaren errespetua bermatuko da programetan.

Kulturartekotasuna: programa guztiek kultur aniztasuna aintzat hartuko dute, eta atzerriar jatorriko herritarren parte-hartzea sustatuko da. Atzerriar jatorriko herritarren parte-hartze aktiboa sustatuko da eta migratutako pertsonen egoera, beharrak, ikuspegia eta aukerak kontuan hartuko dira programen diseinuan, ezarpenen eta ebaluazioan.

Arrazismoa eta xenofobia prebenitzeko eta baztertzeko neurriak aplikatuko dira, eta elkarbizitza demokratikoa eta errespetuzkoa sustatuko duten jarduerak garatuko dira. Komunikazioa hizkuntza-aniztasuna aintzat hartuz egingo da, herritarren jatorrizko hizkuntzak kontuan hartuta informazioa hainbat hizkuntzatan zabalduz eta informazio-kanal egokiak erabiliz.

Era berean, kultura desberdinen arteko trukea bultzatuko da, eta etorkinen elkarteekin lankidetzaz estrategikoa sendotuko da. Iruditerian eta komunikazio euskarrietan pertsona arrazializatuen presentzia bermatuko da, eta kultura anitzeko gizartea islatzen duten erreferenteak bilatzea lehenetsiko da.

Osasuna: herritarren ongizate fisikoa, mentala eta soziala sustatuko da egitasmoetan, ingurune seguru, osasuntsu eta erresilienteak sortzea ahalbidetuz. Honako ekintzen bidez landuko da alor hau:

- Kirola eta jarduera fisikoa izango da zenbait programen oinarrian bizimodu aktiboa sustatzeko: mendi-txangoak, herri kirolak, talde jolasak...
- Elikadura ohitura osasungarriak sustatuko dira sukaldaritza tailerretan, haur eta gazteekin egiten diren ikuskizun eta dinamizazioetan, programen baitan antolatzen diren mokadutxoetan eta abar.
- Osasun mentalaren sustapena ardatz gisa hartuta, emozioen kudeaketa, autozaintza eta harreman osasuntsuen inguruko lanketa txertatuko da familiekin egiten diren tailerretan, helduentzako diseinatzen diren ekintzetan eta abar.
- Adikzioen prebentzioa eta kutsadura fisiko nahiz digitalaren aurkako neurriak sustatuko dira, batez ere haurrei, gazteei eta familiei zuzendutako jardueretan.

Irisgarritasuna: bermatuko da jarduerak pertsona guztientzat eskuragarriak izatea eta horretarako, baliabide eta formatu egokituak erabiliko dira: espazio eta baliabide fisiko, digital eta komunikatiboen egokitzapena egingo da eta formatu ulertterazak eta laguntza-teknologiak erabiliko dira behar denean.

Adibidez: programetarako aukeratzen diren espazioak mugikortasun urria duten pertsonentzako prestatuta egongo dira, jardueren informazioa irakurketa errazean eskainiko da, zeinuhizkuntzako interpreteak jarriko dira behar diren kasuetan, jolas egokitua landuko da eta kanpainen irudietan desgaitasunen bat duten pertsonak agertzea ahalbidetuko da.

Gizarteratzea: parte-hartze aktiboa eta komunitarioa bultzatuko da eta erraztasunak emango zaizkie egoera zaurgarrian eta bazterketa-arriskuan dauden kolektiboek egitasmo eta ekintza guztietan parte har dezaten, nor bere autonomia garatzeko eta harreman-sarea indartzeko.

Programen diseinuan, ezarpenean eta ebaluazioan neurriak hartuko dira kolektibo hauek barne hartzeko: baliabide ekonomiko urriko pertsonak, etorkinak, desgaitasuna duten pertsonak, adinekoak, gazte zaurgarriak eta bestelako aniztasun egoeretan dauden herritarrak. Helburua da inklusio aktiboa sustatzea eta eskaintza errealitate sozial guztietara egokitzea.

Jarduera guztietan jarrera baztertzailer orori aurre egiteko neurriak hartuko dira, eta tratu berdintasuna eta eskubideen unibertsaltasuna oinarritzat hartuko dira.

Gazteria: AROAn, arreta berezia jarriko zaie haur eta gazteei, haiek baitira gaurko komunitateko kide aktiboak eta biharko gizartearen eraldatzaile nagusiak. Gazteen garapen integrala eta ahalduntzea landuko dira, euren gaitasunak, sormena eta ekimena sustatzeko baldintzak eskainiz.

Bestetik, programatzean, gazteen beharrak, interesak eta kezkak jasoko dira, eta parte-hartze erreal eta esanguratsua sustatuko da.

Tokiko gazteriaren talentua, jakintza eta ikuspegia baliatuko dira, euren presentzia eta lidergoa indartzeko eta gazteak lehenetsiko dira hezitzaile, dinamizatzaile, sortzaile eta artista gisa.

Jasangarritasuna: antolatzen diren jardueretan ingurumen inpaktua minimizatzeko ahalegina egingo da eta baliabideen erabilera arduratsua sustatuko da. Kontuan hartuko da mugikortasun jasangarria eta kontsumo arduratsua bultzatzea, material birziklagarri eta berrerabilgarriak eta tokiko produktuak erabiltzea, eta natura-ingurunearen zaintzaz kontzientziatzeko uneak baliatzea.

7. Jarraipena eta ebaluazioa

AROA Plana 2025–2035 epe luzerako estrategia gisa planteatu bada ere, haren egokitzapena, eraginkortasuna eta inpaktua bermatzeko ezinbestekoa da jarraipen eta ebaluazio prozesu sistematikoa egitea.

Ebaluazioaren bidez, planaren garapenean izandako aurrerapenak eta hutsuneak identifikatuko dira, proposatutako ekintzen egokitasuna eta eraginkortasuna neurtuko da, eta beharrezko doikuntzak egiteko oinarriak eskuratuko dira. Ebaluazioak ikuspegi dinamiko eta malgua izango du eta Bilboko testuinguruaren bilakaerara egokituko da.

Planaren jarraipena egiteko une eta adierazle mota desberdinak izango dira. Batetik, planaren bisioarekin lotutako adierazleak batuko dira planaren hasieran, erdian eta amaieran. Bestetik, ekintzen garapenarekin lotutako adierazleak jasoko dira urtero.

Planaren bisioarekin lotutako adierazleak

Planaren bisioa zehaztu denean, helburu eta eragite eremu nagusiak zehaztu dira eta Bilboko euskararen egoera irudikatu da 2035ean, planaren amaieran. Egoera horretara heltzeko, 10 urtetan zehar garatzeko ekintzak proposatu dira, hortaz, beharrezkoa izango da garapena ikustea, plana norabide onean edo txarrean doan aztertze eta planteamenduaren eraginkortasuna neurtzeko.

Hori dela eta, planaren indarraldian zehar, 3 unetan jasoko dira bisioarekin lotutako adierazleak: planaren hasieran (2025ean), planaren erdian (2030) eta planaren amaieran (2035).

Hauek dira, besteak beste eta behinik behin, neurtuko diren adierazleak:

1. Hitzun kopurua eta aktibazioa

- Euskal elebidunen eta elebidun orekatuen kopurua
- Kale erabileraren datua
- Auzoetako hitzun-dentsitatea

2. Transmisioa eta euskara ikastea

- Haur eta gazteen matrikulazio kopurua D ereduan
- Batxilergoa eta unibertsitate ikasketak euskaraz egiten dutenen kopurua
- Euskararen familia bidezko transmisioaren datuak
- Euskaltegietan matrikulatutako ikasle kopurua

3. Gizarteratzea eta aniztasuna

- Atzeritik etorritako pertsona kopurua
- Atzeritar jatorriko pertsonen kopurua euskaltegietan

4. Irudia eta hirian presentzia

- Hizkuntzaren erabilera Udalaren irudian
- Euskaraz barra-barra egitasmoan parte hartzen duten establezimendu kopurua

5. Aisialdia eta kultura

- Udalak antolatutako edo sustatuko euskarazko kultur, kirol eta aisialdi eskaintza
- Udalak antolatutako edo sustatuko euskarazko haur eta gazteen aisialdi antolatuko eta kiroleko eskaintza

6. Komunikabideak eta ikusgarritasuna

- Euskarazko hedabide kopurua eta kontsumitzaile kopurua

7. Institutuzioak eta elkarlana

- Hiriari begirako foro edo batzorde kopurua
- Udal barruko mahai edo batzorde kopurua
- Udalak euskarara bideratutako aurrekontua
- Udaleko zenbat plan estrategikotan hartu den euskara kontuan.

Bilboko euskararen bilakaerari buruzko datuekin lotutako adierazleak batzeko, iturri hauek erabiliko dira, besteak beste:

- Inkesta Soziolinguistikoa
- Mapa Soziolinguistikoa
- HABE
- EUSTAT
- Hizkuntzen erabileraren Kale neurketa
- Ikuspegi-Immigrazioaren Euskal Behatokia
- Bilboko Udala
- Eusko Jaurlaritza

Planeko ekintzen garapenarekin lotutako adierazleak:

Plan estrategiko honen baitako ekintza bakoitzari lotuta, programak eta egitasmoak antolatuko dira urtero, eta horien jarraipena egitea ere ezinbestekoa izango da, planaren norabidea eta eraginkortasuna neurtzen joateko. Hori dela eta, urtero, ekintzei lotutako programa horien adierazleak jasoko dira.

Hauek dira, besteak beste, neurtuko diren adierazleak:

- Ekintzaren garatze-maila
- Programaren helburuen betetze-maila
- Parte-hartzea
- Hartzaileen asebetetzea
- Erabilitako aurrekontu eta baliabideen egokitasun-maila

2035ean, planaren azken urtean, 10 urteetako adierazleak eta bilakaera osotasunean aztertzeaz batera, planaren amaierako ebaluazioa egingo da, hurrengo urteetarako helburuak finkatzeko oinarri izango dena.

8. Eranskina: Bilboko AROA Plan Estrategikoa 2025-2035- Eskema